

## 2011ko Xanistebanetako kartel lehiaketa

Oiartzungo Udal Kultura Batzordeak XANISTEBAN JAIK igartzeko kartel onena hautatu asmoz aurtengo KARTEL LEHIAKETA antolatu du, hauek direlarik bere

### OINARRIAK

- 1.- Kartelaren neurria 70 x 50 cm.koa izango da.
- 2.- Erabili daitekeen teknika librea izango da (argazkia, diapositiba, pintura, marrazkia, collage-a, e.a.), kartelan derrigorrez “**XANISTEBANAK 2011**” agertu behar duelarik.
- 3.- Lehiaketan edonork parte har dezake eta bakoitzak orijinal bat baino gehiago aurkez dezake.
- 4.- Orijinalak kartelen formato konbentzionalei egokiturikoak izanen dira, paperean entregatuko dira eta inprimatzeko erraza antzekoak.
- 5.- a) Lehiaketa honen irabazleak **ZAZPIREHUN (700) EURO**tako saria jasoko du.  
b) Lehiaketako lehen oiartzuarrak, **BERREHUN (200) EURO**tako akzesita jasoko du.  
c) Bestalde, Udalak **BERROGEI TA HAMAR (50) EURO**tako laguntza emango die sariturik gertatzen ez diren beste bi orijinal onenei.  
d) Oiartzungo langabetu edo ikasleen lanak saritzeko, **MARGOSORO UDAL PINTURA AKADEMI**Ako urtebeteko doanezko matrikula saria zozketatuko da. Zozketa honetan ezin izango dute inolaz ere sartu a) eta b) sarien irabazleak.
- 6.- Lanak Oiartzungo Udaletxean (Done Eztebe Plaza, z.g.) aurkeztu behar dira **MAIATZAREN 6ko, eguerdiko 13:00a** baino lehen egilearen izenik gabe lanean bertan, eta kartazal itxi batez lagundirik. Kartazalaren barrenean egilearen izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta langabetua bada frogagiria idatziz aurkeztu behar dira.
- 7.- Epaimahaia Oiartzungo Udaleko Kultura Batzordeak izendatuko du eta bere erabakia ukaezinekoa izango da.
- 8.- Oiartzungo Udalak beretzat gordetzen du lehiaketara aurkeztu diren karelekin erakusketa bat antolatzeko eskubidea.
- 9.- Oiartzungo Udalak ez du izango zerikusirik kartelen balizko galerekin edota kartelek, markoek edo bere babesleek jasan ditzaketen kalteekin.
- 10.- Sariren bat eskuratzen duten kartelen jabea Udala izango da eta bere iragarpen, argitaratze, zabalkunde eta abarren eskubide guztiak gordetzen ditu beretzat.
- 11.- Saritu gabe geratzen diren lanak **IRAILEAN** jaso ahal izango dira. Epe hau amaiturik, lanak ez badituzte egileek jaso, beretzat hartzen ez dituztela hartuko da aintzakotzat, ta Udala beraietaz askatasun osoz baliatu ahal izango da, erreklamazio edo indemnizazio eskubiderik onartuko ez delarik.
- 12.- Lehiaketa honetan parte hartzeako **OINARRI** hauek onartzea dakar.